

MIKEL ZARATEREN IZAERA (*)¹

Sarrera

Mendi handi batek joera bi sortzen ditu gure barruan: alde batetik, *ikarea*; lurrez, haitzez, zuhaitzez, goitasunez, eragoz-penez..., gutaz gainera diran era askotako joan-etorriez atzerantz eragiten deuskulako. Baina, edozein mendik badau beste alde batetik *indar erakarle bat* ere, gure igon-gosea, gure ikus- eta ikas-egarria bizkortu eta zirikatzen dauana.

Horrelako zeozer gertatzen jat niri Mikelen giza izaeraren aurrez-aurre jartzen nazanean: *bildur* antzeko zerbait, haren nortasunaren goi-beheak nire ahalmenez osoan neureganatu ezinekoak dirana ikusten dodalako, eta sakonetiko *bultzada bat*, zatika baino ez bada bere, izaera horren aberastasunak ikusi, aztertu, eskuratu eta sakontzen ahaleginak egiteko.

Atalka- atalka garanduko dot Mikelen izaera, aztertuko dodazan alde guztiekin irudi osotu edo itxurazko argazkia biribiltzeko asmotan.

1. Biziaren maitalea

Gauza guztien gainera eta ezer baino lehenago **biziaren maitale** izan genduan Mikel. Beti izan zan gauzen eta izaki guztien berezko biziaren maitale; naturaltasunak beti poztu izan eban haren bihotza. Biziaren mogimenduak eta mugarik

¹ (*) Mikel Zarateri Bilboko San Adrian ikastolan egindako omenaldirako egin neban berbaldia (1982.eko uztailaren 21ean), apur bat orraztuta.

barik dantzari joian eguneroko biziaren errekak, atsegin eta poza ekarri izan eutson sarritan. Seminario ikastetxeko abade lagunakazko jolasak, Lauroetako Meza osteko musaldi eta alkarrizketak, auto-stopean ezagututako pertsona izenbakoakazko bat-bateko hartu-emonak, eskola aurreko eta eskola osteko ikasleakazko ekitaldi biziak, bolalekuan pentsau-pentsau barik egindako “posturak”, txitean-piteango zenbatu ezineko jardun eta tertuliak.., izan genduzan horren lekuko.

Mikelen bizitza hurretik aztertzen badogu, lanean nahiz jolasean, barruko hari ugari eta sakonetan nahiz besteakazko hartu-emonetan, guztia xurgatu guraz, biziaren olatuetan igeri mozkorrean bizi izan zala esan geinke.

2. Danean bera

Mikelek, **danean bera izan beharra** eukan. Eta bere burua norgehiagoka arnasez osotua egon izan balitz lez, eukan dana emoten ohitua egoan. Norekin neurturik ez eukanean be, berak botatzen eutsan “hordagoa” bere buruari, izatearen ahalmen guztiak leher egin beharrean jarri arte tenkatu eta akulatuz.

3. Borondate sendo eta iraunkorra

Borondate sendo eta iraunkorrekoa ere bagenduan Mikel. Gogoko eta begiko eban zerbait lortu egin arte ekinahalak egingo zituan, nekea, nahigabea, oinazea eta atsekabea leporatu arren. Halan bere, noizik behinean, gorabehera handikoa ere bazan. Zeru goi-goiko izarretatik lurpera edo urpera jausia egongo balitz lez aurkitzen zan batzuetan. Bere izaera sutu, adoretu eta grinatsuak eskatzen eutsana oso urrun egoala nabaritzean, gogorik barik modura geratzen zan, eta dana bertan behera izteko gogo sortzen jakon. Baina ezinak eragindako beheraldi batzuk izaten ziran horreek, nire ustez, gehien-gehienetan baikor, adoretu eta kementsu agertzen zan-eta.

4. Bakarlana maite eban

Bakarreko lana maite eban Mikelek. Begira zer esan gura dodan. Edozeini laguntzeko prest egoten zan beti, baina bakarlana eban gogokoen, bere gogo urduriak, bere asmamen aberatsak eskeinitakoa gauzatzea eta argitaratzea.

Beste alde batetik, baekian berak askosaz ere erosoago zana beretzat, arazo batzuk alboratu ahal izateko, talde itxi baten, itsu-itsuan sartu eta lan egitea, alderdi batekoa edo beste-koa izan talde hori, edota jokabide zehatz eta mugatu baten barruan jardutea... Baina, gauzak ez zituan beti horren argi eta garbi ikusten; egiaren aberastasunak han eta hemen aurkitzen zituan eta, horregaitik, bere askatasuna ez eutsan inongo talderi ez erakunderi salduko.

5. Bihotz zabalekoa

Bihotz zabalekoa eta jokabide ezbardinen aurrean ulermen eta eroapen handikoa ere bagenduan. Berarekin batera urteetan bizi izan ondoren, argi bere argi ikusi izan dot honetan Mikelen bizibidea.

Mikel ez da izan inorekin hasarratzekoa. Zerbait inori ezarri egiteak, bide bakar bat egoala entzuteak, eta bide bakar hori goitik behera ezarri eta behartu egin behar zala entzuteak, izaera zabaleko Mikeli beti emon izan deutso tristura eta mindura. Alkarrizketa zalea zan. Begira behinola esan eustana: *Hara Lontzo: Gure herriak danetariko burrukalariak eta era guztitako gudariak behar jozak, eta nik ezin joat inor baztertu eta, era berean, ez neukek nabi nire lana ere inork baztertzerik; bakotxak geuri jagokigun haritik jokatuz eta besteak zapuztu barik bideak urratuz, begirune eta itzalik handienaz bizi behar joagulako.*

Haren heriotz ondoko hileta eresian holan adierazten neban nik Mikelen izaera:

Mikel,
berariazko nortasunen
itzal eta begirune,

Jainko eta gizonon abade,
zure zeutasunez
besteen eurentasuna
sendotu eta maitatuz
egiazko batasun egile.

Eta nire hitzok ez ziran neure asmamen zoratuaren frutu iheslari; haren izaeraren eta hitzen oihartzun makal baino ez ziran.

“Ipuin antzeko alegi mingotsak” argitaratu barria zala, liburuaren eskeintza egin eustan, idazten zituan guztietan egin ohi eustanez, eta holan jarri eustan aitaturako eskeintza hori:

Lontzo,
hartu nire neutasuna
zeure zeutasuna
sendoagotu dagizun. Zure adiskide, MIKELEK.

Mikelen izaerak baeukan halako nasaitasun eta mugabakotasun alai bat, halako gaztetasun eta berezkotasunaren freskotasun igurtzi bat, alako errespetu, itzal eta begirunezko askatasun girotze bat.

Horregaitik, joera eta jokaera ezbardinetako lagun askok alkarrizketa bizi eta poz emoileak, samin eta suminik bakoak, bizkortzaile eta nasaitzaileak izan ebezan sarri gure Mikelekin.

6. Bizia eta bizkorra

Bizia zan Mikel lanak antolatu eta taiutzerakoan ere. Olerkiak idaztean astiroago, kontuz eta hotzago jokatzen eban, bere arloa ez zalako, nire ustez, nahiz eta bide barriak urratzen ahalegindu zan arlo horretan ere. Baina osterantzeko lanetan, gogo beroaldi baten sortu eta zerturiko saio eta lanak itzi euskuzan.

Gerora, lan bikainago batzuk burutzeko asmotan ebilen eta, aurretiaz, lur arakatze eta ikertze bat egitea gura eban, era berean bere ahalmenak neurtuz.

Gazteen bizitasuna eta bide barriak urratzea oso gogoko eban Mikelek. “Gazte ule baltz gara” idatzi eban Laukizko olerkaria, Lauaxeta, adibidez, gogoko eta begiko jakon Mikeli, euskal olerkiari ibilbide barriak zabaltzen ahalegindu zalako “*Bide barrijak*” eta “*Arrats beran*” liburuetan.

7. Hordagozalea

Bai, hordagozalea izan genduan Mikel, inor inoiz izan bada. Norgehiagokak, apustuak (posturak, guk esaten dogunez) bere izaeraren mun-muinean sartuak eukazan. Eta barru egitura honetatik loratuko balitz lez, *sarizaletasun* bat bizi eban. Sarizaletasun honek sustrai sakonak zituan:

Alde batetik, berezko oinarria: bere izaerea. Mikelek bizi guztian izan eban, barru-barruan, sakonean, berez ernea baleu lez, halako norgehiagoka joera bat, euskaldun askok berez-berez dogun indarrak neurtu nahia, hordagozaletasun bat, berezko goranahi isil, ezkutu baina bultzatzaile bat. Hogeitatu urte zituala ezagutu neban nik Mikel, eta harrezkero frontoian, bolalekuan, mendian, lasterketetan, saltuetan, igerian..., edonoiz, edozetan eta edozeineguz indarrak neurtzen ezagutu izan dot egundo beti. Eta, beste alde batetik, euskeraren munduan aurreragoko maitasun batek bultzatzen eban, hordagozaletasun hori areagotzeko.

8. Euskereaganako maitasuna

Mikel bihotzandi hutsa izan da. Eta euskerea ere bihotz handi horretan sartzen da, Mikelen barru irakin eta gorenengo mailak lortu gurako horretan. Unibertsitatean ikasitako teknika aurrerakoi eta baliabide barriak erabiliz, euskal literatura ere gorenengo mailara eroateko erronka bereganatu eban Mikel hordagozaleak.

Karmelo Etxenagusiak holan inoskun Deustuko Unibertsitatean 1979.eko abenduaren 3an, Mikel Zarate Saria banatzean: *“Ez dot nik izakeraren eraginik ukatuko sari-zaletasun horretan; baina, danen gainetik, beste errazoi sakonago bat dagola uste dot; Zaratek Unibertsitate honetan, irakasleei entzundakotik eta liburuetan irakurritakotik, asko be asko ikasi eban. Jakintza ta literatura mailan ikuspegi zabala ta ederra agertu jakon. Alde ta aldi guztietako idazleekin adiskidetu zan, bide barriak eta teknika aurrerakoi ezezagunak ikasi zituan... Eta berak, herri xeagandik “BASARTEKO UNIBERTSITATEAN” azken barik ikasi eroana eta Deustuko honetan agertutakoa alkarregaz buztartu gurean, gure euskera zabar herrikoari abalmen guztiak bilatu eta atera nahi deutsoz, kanpotiko gaurko teknikak ezarri, LAUAXETAren antzera “BIDE BARRIJAK” erakutsi, LIZARDIgaz batera euskera laztana, eder, dotore, ikusi nai dau erdera guztien artean: “BAINA NIK, IZKUNTZA LARREKOA, NAI AUNAT ERE NORANAIKOA” (IK. Karmeloren berbalditxuko 3. orrialdea).*

Euskerea, ba, berez barik, bigarren une baten sartzen da sari zaletasun mundu horretan. Hemen maitasuna da lehena-gokoa, berak sarri aitatu eustan “txotxolotasuna”, sarien munduko konpetentzia eta lehia baino. Behin baino sarriago jakinazo eustan Mikelek: *“Ezkonduko bagina, zer? Aurretiagoko maitale bat jaukaguk guk; eta emazte eta seme-alaben arduraz eta bizibidea eta dirua irabazi beharraz gure euskertxua, gure txotxolotasuna, txotxolokeria eta lelokeriatzat jo eta zokondo batera batertuko geunkek”.*

9. Sortzaile eta sortarazle

Sortzaldi emonkor baten, “haurgintza minetan” aurkitzen zan Mikel, uste-uste barik heriotzea heldu jakonean. *“Lau liburu daukadaz inprentarako prest eta beste hogeiren bat bai buruan”*, autortzen euskun hil aurretuan. Lezamarra izanik, apur bat handizalea bazan ere, gehiegizko esaera horrek baeban oinarririk...

Irudimen eta asmamen izugarria eukan Mikelek, eta ingurua –gauzak, pertsonak, gertaerak- ezagutzeko begi zorrotza eta berezko erreztasuna eban. Horrezaz gainera, edozein gauza barriren aurrez-aurre aurkitzean, harritzeko eta miresteko ere gaitasun handikoa zan. Bere izaeraren agerpen guzti horreei norgehiagoka zaletasuna gehitu ezker, horra gure Mikel gehiago gurakoa eta gitxigaz ase ezina etenbako sorketa lanen egarri eta eskakizun bizi eta laga ezinekoetan. Eta berak zituan dohai honeek ikasleei ere transmititzea gura eban, zetan hatan begiak jarri eta idaztera bultzatzen ebazanean.

10. Tolerantzia, alaitasuna eta abegi onekoa

Dohaiok bere giza izaeran eta abade jokabidean ondo buztartuta eukazan Mikelek, honako gorputz bakar bat osotuko balebe lez. Haren giza nortasunaren agerpenik sakonek aparteko gurgil bat hartu eben bere abadetasunean eta abadetza lanetan. Amore emotea, tolerantzia, pertsona eta egoeren aurrean begirune, errespetu eta itzala, alde batetik, eta leialtasun etsigatxez, baldintza barik, bere burua eskeintzea bestetik, horra hor Mikelen ezaugarri bereizgarri batzuk, bere makalaldi eta ezinen artean ere.

Alaitasuna zan alderik eta nabarmenatarikoa beragan. Jai zale genduan, folklore eta kirol zalea. Eta haren jaizaleak aparteko indarra hartzen eban eleiz-jaietan eta liturgia ospakizunetan. Meza esatean (ospatzean) eta eleizkizunak egitean, beti bilatzen eban familia giroa sortzea eta jai giro alaitasun lortzea. Ipuienez, kantuz, pasadizuen kontakizunetaz eta bertsoz... jokatzean, ez eban barrikeria edo moda barri bat jarri nahi, inguru egoki eta gaurkotu bat zertu eta gauzatzea baino. Leku desbardinetatik domeka eta jaiegunetan Lauroetara joaten ziranek, bizi izan eben sarri hemen esaten nabilenaren esperientzia pozgarririk.

Abegi oneko gizona zan gure Mikel. Aberats nahiz txiroarekin egoteko ezelako eragozpenik bakoa. Edozeinek jo eikean

berarengana, ezelako atxakiarik ez ebalako jartzen, jakitun nahiz ezjakin, uritar zein baserritar, ahaltzu nahiz eskeko, bat beragana hurreratu eitean. Bere bihotz zabala eta ulermen handiko eroapena edozeini eskeintzen eutsan damu barik.

Baina hau guztia nabarmenago eta erakutsiago egiten zan oraindino gaixoekin, atso-agureekin eta umeekin. Izan bere, Vatikanoko II. Eleizbatzar Nagusiak iragarri euskunez, Liburu Santuetan esandakoaren haritik, makalenak dira Jainkoaren eta Eleizearen seme-alaba kutunenak. Geriako, Lauroeta eta Lezamako aitita-amama askok berba egingo leukie nik baino egokiago arlo honetan, Mikelengan gaztetasuna eta bizipoza erion gizonaren eta abadearen hurtasuna eta arnas bizkortzaillea aurkitu ebelako euren makalaldietan.

Horrezaz gainera, berezko kidesasun bat lortzen eban gazteekin (Seminarioan, Unibertsitatean, herrietako jaietan...) berak agertzen eban alaitasuna, hartu-emonetarako erreztasuna, bere eguneratze gogoa eta jakin-mina bitarteko zirala.

Mikel beti arduratu izan zan kristautasuna eta kristau mezua aurpegi gazte, bizi eta eguneratuan iragartzen. Kristautasuna gizon-emakumeen biziera sakonari lotua eta eguneroko joan-etorrietan eta herriko egitura eta kultura bideetan adierazoa izan eiten, arduraz eta kezkaz bizi izan zan. Fedea gizon-emakumeentzat esanguratsua izan eitela zan bere ardura etenbakoa.

Guztiak aintzat hartuz, egiazko batasun sortzaile izatea izan zan Mikelen asmoa, bere beretasuna eskeiniz, besteen eurentasuna aintzat hartuz, guztientzat anaia eta artzaina dan abadearen berariazko eginkizuna hazurmaminduz.

Lontzo Zugazagak